



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/21

DEIALDIA, DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKOA,
HEGOALDEKO HERRIALDEETAKO TOKI-ENTITATEEKIN TOKIAN TOKIKO
GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK GAUZATU DAITEZEN 2026.
URTEAN.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

Iruñeko Udalak, 2026ko aurrekontuan, 1.665.770 euroko zenbatekoa aurreikusi du hasiera batean Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, honako helburu hauekin: herrialde behartsuetako komunitateetan giza garapena laguntzea, giza jarduketak eta larrialdi-jarduketak martxan jartzea eta herritartasun globalaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea.

II. Plan Zuzentzaile honetan (2022-2025) eta etorkizuneko III. Plan Zuzentzailean (2026-2029) Programaren helburua da Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea, udalerrian aktibo dauden GGKEek ordezkatzan dutena bereziki.

Tokiko giza garapenean lagundu nahi da garapen bidean edo trantsizioan dauden herrialde eta/edo lurraldeetan, baldin eta ELGAko Garapenaren aldeko Batzordeak Garapenaren aldeko Laguntza Ofiziala jasotzen ahal duten herrialde onuradunen indarreko zerrendan badaude. Bereziki lagunduko dira giza eskubideak babestera bideratutako proiektuak, honako arlo hauetan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, edateko ura eta saneamendua, eta tokiko garapen ekonomikoa. Landako edo hiriko komunitateei mesede egin behar diete, eta sustatu behar dute komunitateen/udalerrien eta beren tokiko ordezkari publikoen parte-hartze aktiboa, proiektu horiek proposatu, kudeatu eta gauzatzean.

Iruñeko Udalaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburu estrategikoetako bat da "Herrialde behartsuetako komunitateen giza garapena babestea eta garapenaren aldeko lankidetzako programak, giza jarduketak eta larrialdi-jarduketak martxan jartzea"; helburu espezifikoaren eta lortu nahi diren ondorioen artean, honako hau dago: "Hegoaldeko herrialdeetan giza garapeneko programak egiten laguntzea". Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetzak) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat: hegoaldeko herrialdeetako toki-entitateekin tokian tokiko garapenaren aldeko lankidetzak-proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia, norgehiagokako araubidean. Horregatik guztiatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoei guztiz bat datorren tresna da.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen helburua da proiektuak finantzatzea hegoaldeko herrialdeetako toki-entitateekin batera. Proiektu horiek egiten dira ELGAko Garapenaren aldeko Batzordeak Garapenaren aldeko Laguntza Ofiziala jasotzen ahal duten herrialde onuradunen indarreko zerrendan dauden herrialdeetan.

Toki-entitatea izaera publikoko erakunde bat da (edo legeria nazionalen horren baliokidetzat jotzen den erakundea), lurralde bateko politika publikoak arautzen dituen, demokratikoki hautatutako ordezkari-tza-organismoen legimititatepean jardunez. Berezko nortasun juridikoa izan behar du, eta autonomia politikoa, administratiboa eta finantzarioa.

2. Deialdiaren helburua:

Deialdiaren helburua:

Deialdi honen helburua da hegoaldeko herrien giza garapena eta garapen iraunkorra bultzatzea, toki-entitateekin lankidetzat estuan; horretarako, tokiko lurraldeen eta gizarte-ehunaren autokudeaketa eta autosufizientzia sustatzea da asmoa, eta politika publikoak hitzartzeko tokiko espazioak indartzea.

Honako proiektu hauek dute dirulaguntza jasotzeko lehentasuna:

1) Eremu hauetako batera bideratutakoak:

- o Hezkuntzarako eskubidea: Eskolaurreko hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntza, eta helduen oinarritzko hezkuntza.
- o Osasunerako eskubidea: Osasun hezkuntza, osasunerako oinarritzko laguntza, osasun mentala, elikadura eta gaixotasun infekziosoen prebentzioa eta kontrola. Ugalketa-osasuna, familia-plangintza eta sexu-transmisiozko gaixotasunen aurkako borroka. Genero-indarkeriaren biktimendako arreta.
- o Ura izateko eskubidea: Edateko uraren zikloaren kudeaketarekin zerikusia duten tokiko proiektuak (biltzea, hornitzea, banatzea, saneamendua eta tratatzea)
- o Etxebizitzarako eskubidea: Etxebizitza eta bizigarritasun duinaren aldeko proiektuak (etxebizitzak egiteko programa komunitarioak sustatzea).
- o Tokiko ekonomia garatzeko eskubidea: Toki- zein komunitate-ehun ekonomikoa sustatzeko proiektuak, ekonomia sozial eta solidarioaren eta bidezko merkataritzaren ikuspegitik.
- o Ingurumen osasuntsua izateko eskubidea: Ingurumena babestea eta hobetzea, zentzuzko zainketa eta biodibertsitatearen erabilera arrazoizkoa eta jasangarria.
- o Gobernantza eta giza eskubideak. Toki-entitateak indartzea, hegoaldeko toki-entitateen gaitasun tekniko politikoak sortzen laguntzea, lurraldea antolatze edo garapena planifikatzeko tokiko proiektuak eta tokiko erakundeak indartzeko proiektuak. Gizarte zibilaren parte-hartzea eta tokiko politika publikoak hitzartzeko guneak indartzea. Giza eskubideen defendatzaileak babestea, tokian-tokian.

2) Oinarritzko azpiegiturak berreraikitze proiektuak.

3) Bereziki kalteberak diren taldeekin lan egitea: herri indigenak, gutxiengo etnikoak, errefuxiatuak, desgaitasuna duten pertsonak eta haurrak.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Deialdi honetara aurkezten ahalko dira honako modalitate hauetan txertatutako proiektuak:

* A modalitatea: Proiektu BERRIAK: Deialdi honetara 2026. urtean lehen aldiz aurkeztutako proiektuak dira.

* B modalitatea: JARRAITUTASUN-proiektuak. Aurreko urteetan deialdi honetara aurkeztutako proiektuak dira, exekuzioa hasi eta diruz lagundu direnak, eta haien jarraipena aurkezten da 2026an.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkezten ahalko du deialdi honetan, eta, horretarako, ulertuko da entitate desberdinak direla elkarte bat eta hura osatzen duten entitateak. Halaber, beste entitate batzuen laguntza eman eta jasotzen ahalko da proiektuak gauzatzerakoan, baina horrek ez du aldatuko entitate eskatzaileak duen onuradun bakar izaera.

Baldintza eta betekizun KOMUNAK

1) Bat etortzea deialdi honen xedearekin eta, halakorik izanez gero, bertan adierazitako lehentasunekin.

2) Proiektuak Marko Logikoaren Ikuspegian oinarrituta identifikatu eta formulatu behar dira, edo, bestela, beste metodologia normalizatu batean, non argi eta garbi eta modu antolatu batean zehaztuko baitira esku-hartzearen helburuak, espero diren emaitzak eta proiektua gauzatzeko behar diren jarduerak eta baliabideak.

3) Tokiko kide bat edukitzea (kontrapartea) proiektua garatu behar den eremuan. Kide hori Administrazio Publiko bat izan daiteke, edo tokiko erakunde bat, barne harturik eskaera egiten duen entitateak herrialde hartzailean duen ordezkaritza.

4) Zehaztasun handiz azaltzea nola gauzatuko diren proiektuaren barneko jarduketak eta zer nolako harremanak ezarriko diren tokiko kidearekin, toki-entitatearekin eta komunitate hartzailearekin diruz lagundutako ekintzaren jarraipena egiteko.

5) Proiektua xede den toki-entitatearen Udal Garapen Plangintzaren, edo antzekoaren, parte izatea, edo, bestela, entitate horren konpromisoa aurkeztea, dirulaguntza jasoz gero, hura lau hilabeteren epean Plangintzan txertatzeko, entitate eskatzaileari dirulaguntza ematearen gaineko jakinarazpena egiten denetik aitzina kontatuta.

6) Proiektuaren xede den toki-entitateak aktiboki parte-hartzea.

7) Proiektuari lotutako sentsibilizazio-jardueraren/jardueren proposamen bat proiektuan sartzea, zeina Iruñean eginen baita.

8) Botikak emateko edo horiek eskura jartzeko jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak eta Osasunaren Munduko Erakundeak botikak emateko ezarritako jarraibideei lotu beharko zaizkie.

9) Proiektuek 12 hilabeteko iraupena izan behar dute, eta entitate eskatzaileak Iruñeko Udalari jakinarazi beharko dio proiektua benetan noiz hasiko den, dirulaguntza benetan jasotzen duenetik hilabeteko epean, Iruñeko Udalaren dirulaguntza jaso izana ziurtatzen duen diru-sarrera erantsita.

Hasteko azken eguna (aurretik): Jarduerak ezin dira hasi 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Hasteko azken eguna (ondoren): Jarduerak gehienez ere hurrengo hiru hilabeteetan hasiko dira, dirulaguntza benetan jaso eta hortik aitzina.

A modalitatean aurkezten diren proiektuen kasuan (Proiektu Berriak):

1) Deialdi honetako oinarriak betetzeko, nahiz eta urtebeteko epeari dagokion eskaera, epe ertainerako



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

eraginak lortzeko diseinatuko dira proiektuak, eta, beraz, jarraitasun-programazioa izan beharko dute hurrengo bi urteetarako (urtebeteko fase independenteetan banaturik). Ildo horretan, eboluzio-proiektuak izanen dira (ezin izanen dira urteroko kopia gisa diseinatu hiru urteetan zehar) eta zehaztapen maila desberdina izanen dute esku-hartzearen urte bakoitzerako.

2) Lehen urteari dagokion proiektua xeheki azalduta aurkeztuko da, eta egin beharreko jarduketa bakoitza argi eta garbi garatuta. 2. eta 3. urteak, berriz, ez dira nahitaez zehatzak izanen; hala ere, jarraipeneko ekitaldiko dirulaguntza eskatzeko unean, une horretan garatu beharko dira, eta, hala badagokio, jarraipeneko aldi horri dagozkion jarduketak eguneratu.

B modalitatean aurkezten diren proiektuen kasuan (jarraitutasun-proiektuak):

1) Finantzaketa jaso izana hegoaldeko herrialdeetako toki-entitateekin garapenaren aldeko lankidetzaproiektuak gauzatzeko Iruñeko Udalaren 2025eko dirulaguntzen deialdian.

2) 2026an jardunean aritzea.

3) 2026an aipatutako proiektuari segida emateko proposamen bat aurkeztea.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 180.000 €

Aipatu aurrekontu-kontsignazio hori 90/23930/490000 partidaren kargura egotziko da, eta, Udalaren Osoko Bilkurak funts berriak sartzea onetsiz gero, 90/23930/790000 partidari ere egozten ahalko zaio.

Deialdi honi esleitutako gehieneko aurrekontu-kontsignazioa modalitate hauetan banatuko da eta zenbateko hauek izanen ditu:

- A modalitatea: 60.000 €

- B modalitatea: 120.000€

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, deialdi hau ebatzen denean funts erabilgarririk baldin badago, deialdi honetara bideratzen ahalko dira eta horren guztizko zenbatekoari gehitu; eta kreditu erabilgarri osoa ez balego, Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren beste deialdi batzuetara bideratzen ahalko da.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/23930/490000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Onuradun bakoitzari ematen ahalko zaion gehieneko zenbatekoa ezin izanen da 60.000,00 € baino gehiagokoa izan.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI

☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta: 180.000 € 2. urtekoa () € 4. urtekoa () €

1. urtekoa () € 3. urtekoa () €

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1) Bere izaera juridikoarekin bat eratutako pertsona juridikoa izatea, irabazi-asmorik gabekoa, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erregistroan izena emanda izatea eskabideak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratua izatea.

2) Estatutuetan xede izatea, espresuki, garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzari eta herrien arteko elkartasunari lotutako jarduerak egitea.

3) Presentzia Iruñean:

Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra, edo

egiaztatzea azken 2 urteetan Iruñean gutxienez bi jarduera egin izana entitate eskatzailearen gidaritzapean. Jarduerak oinarritu behar dira Hegoaldeko herrialdeen egoeraren inguruko elkartasunaren eta sentsibilizazioaren sustapenean.

4) Egiaztatzea eskarmentua duela garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako proiektuen kudeaketan; azken 15 urteetan gutxienez 6 proiektu egin direla egiaztatu beharko da (horietako hiru, gutxienez, herrialde hartzailean).

5) Entitatearen helburu sozialak beteko direla bermatuko duen egitura nahikoa izatea.

6) Deialdi honetan edo Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren besteren batean aurretik dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki deialditik kanpo geratuko dira.

7) Proiektua gauzatzeko ardura duen entitatearen (tokiko kidea) lan-esperientziari eta helburuei buruzko informazio nahikoa ematea, eta azaltzea zer nolako harremanak ezarriko diren tokiko kidearekin edo komunitate hartzailearekin diruz lagundutako ekintzaren jarraipena egiteko.

8) Deialdira pertsona-taldeak aurkezten ahal dira, fisikoak zein juridikoak, publikoak zein pribatuak, nortasun juridiko propioa izan ala ez, eta elkarrearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan. Taldeko entitate guztiek aurreko betekizun guztiak bete beharko dituzte.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.



E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

A modalitatea (proiektu berriak):

- 1) Ebazpena jakinarazi ondoren, emandako dirulaguntzaren berri ematea haren tokiko kideari eta xede den toki-entitateari.
- 2) Erantzukidetasun hitzarmen bat sinatzea finantzatuko den lankidetzeta-programa garatzeko. Hitzarmen hori Udal Erregistro bidez helaraziko zaio Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzeta Programari, gehienez ere hiru hilabeteko epean, dirulaguntza noiz kobratu eta ordutik aitzina kontatuta.

B modalitatea (jarraitutasun-proiektuak):

- 1) Hasierako lankidetzeta-hitzarmena berrestea.

BETEBEHAR KOMUNAK

- 1) Iruñeko Udaleri jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro. Era berean, jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.

- 2) Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradun diren entitate eskatzaileek nahitaez adierazi beharko dute –izapide telematikoa dagokion laukiaren bidez– ea ezinbestean bete behar dituzten Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritako gardentasun-betebeharrak. Bete behar badituzte, izapide telematikoa horretan bi agiri txertatu beharko dituzte: batetik, entitatearen zuzendaritza-karguen organigrama, haien eginkizunak, arduraldiak eta ordainsariak biltzen dituen agiria; eta bestetik, entitateak eskuragai dituen urteko azken kontuak biltzen dituenak.

- 3) Proiektua gauzatzea eskabidean adierazitakoarekin bat; proiektuari hasiera eman beharko diote, gehienez ere, dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean, salbu eta aparteko edo ezinbesteko inguruabarrek hala egitea galarazten badute, edonola ere, inguruabar horiek justifikatu beharko dituztelarik.

- 4) GNLUPeko taldeari esku hartzeko eremuan programatutako bisiten berri ematea, eta bisita horien ondoren, horren berri emateko bilera bat hitzartzea.

- 5) Formulatzeko prozesuan adimen artifizialeko tresnak erabiltzen badira, berariaz aipatu behar da tresna horien erabilera.

- 6) Jasotako funtsek sortzen dituzten finantza-etekinak edo interesak erabiltzea bakarrik diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari lotutako zuzeneko gastuak ordaintzeko. Kasu horretan, onuradunak banku-agiriaren bidez egiaztatu beharko ditu etekin horiek, eta justifikazio ekonomikoan adierazi beharko du zer kontzepturi egotzi dizkion.

- 7) Dirulaguntza honen kargura egiten diren material-, ekipamendu- eta hornidura-erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean egin beharko dira, eta bertako produktuekin.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, deialdi honen unitate kudeatzaileari, hau da, Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programari. Dagokion eskuratzea egin aurretik eman beharko da baimen hori.

8) Eraikitako, birgaitutako edo eskuratutako ondasun guztiak eta inbertsio-ekipoak formalki lotuta geratu beharko dira egindako jarduketaren helburuekin, gutxienez bost urterako, erregistro publiko batean inskribatzen ahal diren ondasunen kasuan, edo bi urterako, gainerako ondasunen kasuan. Behin proiektua amaituta, erakunde publikoei edo proiektuaren azken hartzaile diren pertsona edo erakundeei transferitu beharko zaizkie. Edozein arrazoi dela-eta, onuradunak erantzukizun hori bere gain hartzeko aukerarik ez badu, dirulaguntzaren onuradunak proposamen alternatibo arrazoitua aurkeztu beharko dio dirulaguntza eman duen organoari, onets dezan.

9) Gastu diruz lagungarriaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada –obraren exekuzioak eragindako kostuaren kasuan–, edo 12.000 eurotik gorakoa – ekipamendu-ondasunen horniduraren kostuaren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, diruz lagundu daitezkeen gastuen eta/edo herrialdearen ezaugarri bereziengatik, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori behar bezalako baldintzetan eman dezaketen behar adina entitaterik ez bada. Hori gertatuz gero, txosten xehatua egin beharko da salbuespena ziurtatzeko. Txosten hori tokiko kideak egin beharko du, eta entitate onuradunak justifikatu. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

10) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea jardueren garapena hedatzeko, iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera, lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez. Honako hau egin behar da, gutxienez, eta GNLUPi helarazi azken txostenarekin batera, beranduenez: albiste labur bat, argazkiekin batera, edo proiektuaren mugarri zehatzak jasotzen eta islatzen dituen bideo labur bat.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☒ BAI ☐ EZ

Xede-epea: Entitate eskatzaileak dirulaguntzaren xede den helburuetarako erabili beharko ditu ondasun horiek, gutxienez 5 urteko epean, erregistro publiko batean inskribatzen ahal diren ondasunen kasuan, eta gutxienez 2 urtekoan gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publiko batean inskribatzen ahal diren ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da inguruabar hori, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere; halaber, zehaztasun horiek jasoko dira dagokion erregistro publikoan inskripzioa egitean.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Onuradunek proposatutako aldaketa guztiak VI. eranskinarekin bat aurkeztu beharko dira, eta cooperacioninternacional@pamplona.es helbidera bidali. GNLUPeko taldeak baloratuko du ea sartutako aldaketek betekizunak betetzen dituzte, eta ea eskaera erregistro orokorrean aurkeztu behar den.

Aldaketak baimentzen ahalko dira, baldin eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badituzte eta aldaketa eragin duten inguruabarrak entitate onuradunei egotzi ezin bazaizkie; inguruabar horiek behar bezala egiaztatuko dira, eta ez dute aldatu behar diruz lagundutako esku-hartzearen jardura nagusiaren zentzua, ez eta dirulaguntzaren xedea ere.

Funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauetan aldaketak eragiten dituztenak:

- o Helburuak eta emaitzak, edo horien adierazleak.
- o Tokiko kidea.
- o Xede-populazioa.
- o Kokapena lurraldean.
- o Proiektuaren zenbatekoa, orotara.

Aldaketak Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinarazi behar zaizkio eskaera arrazoitu baten bidez, hori justifikatzen duen kausa agertu bezain laster, eta betiere proiektua gauzatzeko epea amaitu baino lehen. Aldaketa gauzatu ahal izateko, Iruñeko Udalak onetsi beharko du.

Proiektua gauzatzean gertatzen ahal diren gertakari txikiak edo aldaketa ez funtsezkoak dagozkien jarraipen-txostenetan adierazi beharko dira.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskabide elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidearen bidez.

Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G apartatuan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Epe hori ezin izanen da inolaz ere luzatu.



Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Ez da beharrezkoa izanzen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena ematen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagiria: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Betiere aldaketarik egon ez bada eta bost urte baino gehiago igaro ez badira zein prozedimendutarako aurkeztu eta hori amaitu zenetik. Kasu horretan I. eranskina bete beharko da.

Hala ez bada, honako hauek erantsi:

1. Entitatearen estatutuak
2. Entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzeak agiriak.
3. Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.
4. Entitate eskatzailearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo antzekoa; ordezkari-izaeraren eta une horretan aitorturik duen ahalordearen akreditazioa).
5. Ziurtagiria, egiaztatzeak Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkarteen Erregistroan izena emana duela.

Tokiko kidearen edo kontrapartearen nortasun juridikoa egiaztatzeak honako agiri hauek:

Gizarte-erakunde kasuan:

- a) Entitatearen estatutuak.
- b) Legezko eraketa egiaztatzeak agiriak, tokiko kidearen herrialdeko legeekin bat.



- c) Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.
d) Entitate eskatzailearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo antzekoa)

Toki-erakundearen kasuan:

- a) Erakundearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta horren akreditazioa: Alkatea edo antzeko karguduna (nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo antzekoa)
b) Izendapen-erabakiaren kopia edo hura egiaztatzeko dokumentu ofiziala.
c) Legezko helbidea, osorik.

.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapidean ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

- c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatari helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria II.I. eranskinean atxikitako ereduarekin bat aurkeztu beharko da.

g) Aurrekontu banakatua, jarduketa garatzeko gastuekin eta diru-sarrerekin, bai eta entitateak paratzen dituen baliabideak eta beste erakunde edo entitate batzuei eskatu edota horiek emandako dirulaguntzak ere aipatuta. Onetsita badaude, erantsi onesteko ebazpena. Deialdi honen II.II. eranskinarekin bat (Excel edo Wordko aurrekontua) egin beharko da.

h) Garatu beharreko proiektua behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen bada, dokumentazio grafikoa, teknikoa, finantzarioa eta beste mota batzuetakoa. Eranskinak izenburuarekin eta zenbakituta



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

aurkeztuko dira, eta proiektuarekin lotuta egonen dira, ez entitatearekin.

i) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, eskatzailearen banku-entitateari dagokionez aldaketarik izan bada (III. eranskina).

A modalitatean (proiektu berriak) aurkeztu diren entitate eskatzaileek, aurrekoen gain, honako hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Entitatearen ahalmena, zeinak honako hauek biltzen baititu: helburuak eta lan-ildo instituzionalak, egitura, zein lurraldetan jarduten duen eta esperientzia (IV. eranskina).
2. Egiaratztea eskarmentua duela garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako proiektuen kudeaketan; azken 15 urteetan dirulaguntza publikoen kargura gutxienez 6 proiektu egin direla egiaztatu beharko da (horietako hiru, gutxienez, herrialde hartzailean). Kudeatutako proiektuen akreditazioa finantzaketa egin duten administrazio publiko finantzatzaileek emandako ebazpenen bidez egin beharko da.
3. Entitate eskatzailearen, tokiko kidearen (kontrapartea) eta xede den toki-entitatearen arteko alde aurreko hitzarmena, proiektua deialdi honetara aurkezteari buruzkoa (V. eranskina).
4. Sinatu beharreko hitzarmen-eredua, baldin eta dirulaguntza jasotzen bada, non arautuko baitira proiektua gauzatzean alde bakoitzak izanen dituen esku-hartzea eta ardura, hori guztia proiektuaren proposamenak jasotako urteei dagokienez.
5. Toki-entitate onuradunaren ziurtagiria, non egiaztatuko baita indarreko Udalaren Garapen Plangintza bat edo antzekorik badela, zeinean aurkeztutako proiektua sartuko baita, eta bertan adierazita onespentata eta planaren iraupena. Edo, bestela: idatzizko konpromisoa, non jasoko baita dirulaguntza jasoz gero proiektua dokumentu horren baitan sartuko dela, gehienez ere lau hilabeteko epean entitate onuradunari dirulaguntza ematearen gaineko ebazpena jakinarazten zaionetik aitzina kontatuta. Udalaren Garapen Plan horren edo antzekoaren kopia bat aurkeztu behar da euskarri informatikoan.

B modalitatean aurkeztu direnen kasuan (jarraitutasun-proiektuak):

1. Entitate eskatzailearen, tokiko kidearen (kontrapartea) eta xede den toki-entitatearen arteko hitzarmena berritzea, proiektua jarraitutasun-proposamenaren arabera gauzatzeari buruzkoa.
2. Dokumentazio guztia 2026ko ekitaldiari dagokion gauzatzeko aldiari buruzkoa izanen da.

Deialdi honetara proposamenak modu telematikoan baino ezin dira aurkeztu.

.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitotutakoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkeztu dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: 175 puntu gehienez ere.



1. blokea. Egokitzen-maila deialdiaren lehentasunetik (3 puntu bitarte): Baloratuko da proposamena deialdian lehenetsitako sektorearen batean kokatzea. Era berean, positiboki baloratuko da oinarritzko azpiegiturak berreraikitze proiektuak izatea eta/edo bereziki kalteberak diren taldeekin lan egitea: herri indigenak, gutxiengo etnikoak, errefuxiatuak, desgaitasuna duten pertsonak eta haurrak.

2. blokea. Entitatearen eta jarduketari ekin behar dioten gaitasuna zein horien harremanen kalitatea (20 puntu bitarte).

2.1. Entitate eskatzailearen eskarmentua eskualdean edo sektorean (10 puntu bitarte): Baloratuko da entitate eskatzaileak honelako proiektuak kudeatu izana: Udalak finantzaturako proiektuak eta/edo Iruñeko Udalaren antzeko garrantzia duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuek finantzaturako proiektuak. Era berean, baloratuko da garapenaren aldeko lankidetzako proiektuen kudeaketan esperientzia dokumentatzea, batez ere herrialde hartzailean eta jarduera-sektorean.

Azkenik, baloratuko da proiektuaren kudeaketa eta jarraipen tekniko entitate eskatzaileak Iruñean duen bulego edo ordezkarietatik egitea.

2.2. Tokiko kidearen (kontraparte) eskarmentua eta gaitasuna eskualdean eta eremuan (7 puntu bitarte): Baloratuko da tokiko kideak komunitatearekin edo eremu berean edo lan-sektore berean 2 urtetik gorako lan-esperientzia izatea, eta esperientzia hori ondo azalduta eta/edo dokumentatuta egotea. Halaber, baloratuko da Iruñeko Udalak finantzaturako proiektuekin lan-esperientzia izatea.

2.3. Entitate eskatzailea edo tokiko kidea (kontraparte) eta toki-entitatea aurrez elkarlanean aritu izana (3 puntu bitarte). Baloratuko da entitate eskatzaileak edo tokiko kideak alde aurretik proiektuan parte hartu izana toki-entitatearekin.

3. blokea. Proiektuaren protagonistak eta onuradunak (22 puntu bitarte)

3.1. Esku-hartzeak artatutako biztanleria onuradunaren estaldura / hedadura (2 puntu bitarte): Baloratuko da proiektuak eremu jakin bateko ahalik eta pertsona gehienei estaldura ematea.

3.2. Onuradunei buruz emandako informazioa (5 puntu bitarte): Baloratuko da onuradunak modu egokian eta eguneratua ezaugarritzea, sexuaren edo adin-taldearen edo beste irizpide garrantzitsu batzuen arabera bereizita, eta proiektuaren onurak zertan jasoko dituzten azaltzea.

3.3. Desgaitasunen bat duten onuradunak (1 puntu bitarte): Baloratuko da desgaitasunen bat duten pertsonak artatzea.

3.4. Onuradunen parte-hartzea proiektuan (4 puntu bitarte): Baloratuko da biztanleria onuradunaren parte-hartzeari erreferentzia egitea, eta parte-hartze hori argi eta garbi islatzea, bereziki erabakiak hartzerakoan.

3.5. Komunitatearen edo oinarritzko partaidetza eta antolamendua sustatzea (4 puntu bitarte): Baloratuko da oinarritzko gizarte-erakundeei emandako laguntza, baldin eta erakunde horien helburua komunitate-bizitza kudeatzea bada, eta erakunde horiei buruzko informazioa ematea, bai eta onuradunen komunitatean egindako lana ere.

3.6. Gizarte-erakundeen parte-hartze bateratua sustatzea tokiko eragileetan, beste talde edo erakunde batzuekin batera (garapenaren aldeko kontseiluak, mahai sektorialak, etab.) (6 puntu bitarte): Proiektua honako asmo honetara bideratzea baloratuko da: gizarte-erakundeen baterako parte-hartze sustatzea



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

toki-entitateek esku hartzen duten tokiko eragileetan (garapen-kontseiluak, mahai sektorialak, plangintza parte-hartzailea, etab.).

4. blokea. Teknikaren eta aurrekontuaren kalitatea (83 puntu bitarte):

4.1. Proiektuaren aurkezpena: eranskinak eta abal-gutun egokiak (2 puntu bitarte): Baloratuko da aurkeztutako abal-gutunak egokiak eta koherenteak izatea erakunde gutun-emaileek proposameneko jardueretan duten parte-hartzearekin, bai eta aurkeztutako eranskin teknikoak egokiak izatea ere.

4.2. Proiektua identifikatzeko garatutako prozesua (5 puntu bitarte): Baloratuko da proiektua identifikatzeko lana nola egin den eta haren izaera parte-hartzailea azaltzea.

4.3. Testuingurua (7 puntu bitarte): Baloratuko da mapa xehatu bat eranstea eta TOKIKO testuinguru sozioekonomiko geografiko eta sektoriala argi eta zehatz deskribatzea. Era berean, baloratuko da, hala badagokio, honako hauek aipatzea: proiektuaren beharra justifikatzen duten azterlanak edo analisiak, proiektuaren jatorria kokatzen lagunduko duten aurrekariak, inguruko antzeko esperientziak eta horiekin koordinatzeko mekanismoak, eta proiektuak tokiko, eskualdeko edo estatuko dinamikekin duen loturari buruzko informazioa, baldin eta dinamika horiek proiektuaren sektorearekin zerikusirik badute.

4.4. Finkatutako helburuak, aurreikusitako emaitzak, antzemandako arriskuak eta arintze-neurriak deskribatzea (7 puntu bitarte): Helburuak eta emaitzak argi definitzea baloratuko da, bai eta balorazio-adierazleak edo -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta egiaztapen-iturriak aurkeztea ere, bai eta planteatutako ekintzaren arriskuen analisia egitea eta egoten ahal diren zailtasunen alternatibak planteatzea ere.

4.5. Jardueren deskribapena (15 puntu bitarte). Baloratuko da honako hauek zehaztea: jarduerak egiteko modua, horien iraupena (kronograma erantsi beharko da), jarduerak gauzatzeko arduradunak, parte hartuko duten pertsonak eta erakundeak, beharrezko materialak eta ekipamenduak, eta ea irisgarritasun-neurriak edo -alternatibak dituzten. Halaber, baloratuko da jardueraren edukiarekin zerikusia duten materialak argitaratzea eta zabaltzea, bai eta horien banaketa azaltzea.

4.6. Aurrekontua (24 puntu bitarte) Baloratuko da behar duten partida guztien kalkulua azaltzea, planteatutako jarduerari dagokienez koherentea eta justifikatua izan dadin. Horretarako, Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren erabilera zehaztuko da, zenbait emaileren finantzaketa jasoz gero.

Azkenik, baloratuko da lankidetzaren deszentralizatutako beste erakunde batzuek proiektua babestea, bereziki nafarrak badira, bai eta tokiko kidearen, xede den biztanleriaren eta/edo inguruko erakunde publikoen diru-ekarpenak edo ekarpen balorizatuak ere. Bereziki baloratuko da inplikaturako xede den toki-entitateak proiektuari ekarpen bat egitea, eta aurreikusitako baterako finantzaketa ziurtatuta egotea.

4.7. Koherentzia, ekintzaren justifikazioaren, ezarritako helburuen eta proposatutako jardueren artean (5 puntu bitarte): Baloratuko da lotura koherentea egotea konpondu nahi den arazoaren deskribapenaren eta horretarako ezarritako helburu, emaitza eta jardueren artean.

4.8. Bideragarritasun teknikoa (6 puntu bitarte): Erabiliko diren bitarteko teknikoak garatzea baloratuko da, bai eta horiek proiektua garatzen den ingurunera egokitzen direla justifikatzea ere. Eraikuntzaren bat egitea dakarten proiektuen kasuan, obraren planoak eta erabili beharreko materialen azalpena behar dira, baita aurrekontuan jasotako prezioa ere. Ekoizpen- eta azpiegitura-proiektuen kasuan ezinbestekotzat jotzen da bideragarritasun-plana, oinarritzko mailan bada ere: espero diren diru-sarrerak eta gastuak azaltzea.

4.9. Jasangarritasuna (8 puntu bitarte): Baloratuko da proiektua etorkizunean mantentzeko neurri



ekonomiko eta sozial nahikoak kontuan hartzea, bai eta, proiektuaren kanpoko laguntza amaitu ondoren, azpiegiturak edo ekipoak mantentzeko aurreikusitako neurriak aipatzea ere, proiektuan sartuta badaude.

4.10. Osagarritasuna (4 puntu bitarte): Baloratuko da proiektua eremuko garapenerako programa global baten parte izatea, hainbat eragilek (publikoak/erakundeak) bertan modu koordinatuan eta osagarrian parte hartzea, eskualdeko jarduera publikoak indartzeko edo osatzeko bokazioa izatea, eta tokiko agintari publikoek parte-hartze aktiboa izatea. Halaber, baloratuko da proiektua toki-erakunderen batek azken bost urteetan toki berean finantzatzeko proiektu baten edo jarduera-programa baten jarraipena izatea.

5. blokea. Udalak zenbateraino indartzen duen proiektua eta zenbateraino hartzen duen parte proiektua garatzen, eta zenbateraino den osagarria tokiko politika publikoarekin (18 puntu bitarte)

5.1. Herrialdeko politika eta/edo zerbitzu publikoekin, batez ere udal mailan (7 puntu bitarte): Baloratuko da proiektua inguruko politika publikoak indartzeko edo osatzeko asmo nabarmen eta dokumentatuarekin planteatzea, eta, gainera, inguruko erakunde publikoek parte-hartze aktiboa izatea (aurrekontu-ekarpena, lursailen lagapena, azpiegiturak, etab.). Baloratuko da, halaber, udalaren zerbitzu edo prestazio berri bat abian jartzea proiektuaren inplementazioaren ondorioz, edo udal-zerbitzu edo -programa batek parte hartzea proiektuak irauten duen hiru urteetan.

5.2. Xede den toki-entitatearen inplikazioa proiektuan (5 puntu bitarte): Baloratuko da toki-entitatearen parte-hartze aktiboa sustatzea, bai eta entitate horrek urteko plan operatiboetan/aurrekontuetan baterako finantzaketaren zati bat bere gain hartzea ere.

5.3. Toki-entitatearen rola proiektua gauzatu ondoren (3 puntu bitarte): Baloratuko da ezarritako azpiegiturak/zerbitzuak transferitzeko prozesu bat egotea, bai eta toki-entitateak prozesu horren garapenean eta jarraipenean zeregin garrantzitsua izatea ere.

5.4. Iruñeko Udaleko edo Nafarroako beste toki-erakunderen bateko udal alorrekin lankidetzan aritzeko proposamena (3 puntu bitarte): Baloratuko da proiektuaren gaiarekin zerikusia duten alorrekin lankidetzat proposatzea.

6. blokea. Zeharkako ardatzak (11 puntu bitarte)

6.1. Giza eskubideak (4 puntu bitarte): Baloratuko da proiektuak giza eskubideen defentsarako jarduera zehatzen bat aurreikustea, batez ere honako hauei aurre egiteko: a) pertsonen edo taldeen aurkako gertaerak, beren sinesmen politiko edo erlijiosoengatik, arrazagatik edo lurraldearen defentsagatik, edo b) emakumeen edo haurren eta nerabeen duintasun edo osotasun fisikoaren aurkako gertaerak. Gainera, baloratuko da proiektuak dirulaguntzaren xede den sektoreko politika edo zerbitzu publikoei erreferentzia egitea, eta nola aurreikusten duen politika edo zerbitzu horiek koordinatzeko edo haiekiko eragina izateko modu bat.

6.2. Genero-ikuspedia (4 puntu bitarte): Baloratuko da generoaren arabera -emakumeak eta gizonak- bereizitako arazoan eta premien azterketa egitea; bertan jasoko dira emakumeek eta gizonak proiektuarekin lotuta dituzten erantzukizunak, jarduerak eta parte hartzeko mugak, bai eta premiak asetzeko baliabideetarako sarbideari eta horien kontrolari buruzko informazioa ere. Halaber, baloratuko da emakumeen eta gizonen aukerak sustatzeko baliabide egokiak proposatzea (gaitasunak, langileak, aurrekontua, parte hartzeko estrategiak...).

6.3. Ingurumen-inpaktuak (3 puntu bitarte): Baloratuko da erreferentzia argi eta esplizitua egitea ingurumen-inpaktuari eta hura lantzeko moduei, honako hauekin loturik:
- Kapital naturala zaindu, mantendu eta babestea.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Garraio- eta mugikortasun arloan jarduteko irizpideak (distantziak murriztea, motorizatu gabeko garraio bideak indartzea, mobilizazio kolektiboa, etab.).
- Jarduteko irizpideak baliabideei dagokienez: energia, ura, eraikuntzako materialak, azpiegitura - eta hondakin-sareen erabilera partekatua sustatzea.

7. blokea. Jarraipena eta ebaluazioa (10 puntu bitarte): Baloratuko da jarraipen- eta ebaluazio-prozesua nola gauzatuko den argi eta garbi azaltzea (eta matrize/plan bat eranstea), bai eta biztanleria onuradunak eta toki-entitateak proiektuan parte-hartzea ere. Azkenik, ebaluazio-prozesu bat aurreikustea baloratuko da, barnekoa, kanpoko edo mistoa.

8. blokea. Iruñeko herritarrak sentsibilizatzea (8 puntu bitarte): Baloratuko da sentsibilizazio-ekintza bat edo gehiago planteatzea, sentsibilizazioaren esparruan berritzaileak direnak edo ohikoak ez direnak. Halaber, baloratuko da proiektuaren garapenean tokiko beste aktore batzuek (Iruña edo Nafarroa) parte hartzea, eta komunitate onuradunaren eta Iruñeko talde baten artean nolabaiteko harremana sustatzea.

GUTXIENEN PUNTUAZIOA

* Dirulaguntza jaso ahal izateko, proiektuak gutxienez 115 puntu lortu beharko ditu.

* Puntuazio hori gainditu duten proiektuen artean honela banatuko dira dirulaguntzak, C apartatuan jasotako aurreikuspenekin bat:

o A modalitatea (proiektu berriak): gehieneko puntuazioa lortzen duen proiektua.

o B modalitatea (jarraitutasun-proiektuak): gutxienezko puntuazioa lortu duten proiektu guztiek jasoko dute dirulaguntza.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria. Ordezkoa: horrek eskuordetutako beste zinegotzi bat.
Batzordekideak:	
1.	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: alorreko idazkari teknikoa.
2.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat. Ordezkoa: alorreko udal teknikari bat.
3.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat. Ordezkoa: alorreko udal teknikari bat.
Idazkaria:	Iruñeko Udaleko Zuzenbidean lizentziaduna garapenaren aldeko lankidetzako esparruari atxikia. Ordezkoa: Udal Aholkularitzako beste zuzenbide-lizentziadun bat.



J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbaierik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

Batera finantzatutako proiektuen zuzeneko eta zeharkako gastuak estaltzen ahalko dituzte, jarraian xedatutakoarekin bat:



Zuzeneko gastutzat joko dira proiektua gauzatzeari zuzenean lotutakoak eta finantzabide direnak proiektuaren helburuak lortzeko. Zuzeneko gastu hauek jasotzen ahalko dute dirulaguntza:

Inbertsio-gastuak

1. Azpiegiturak.

1.1. Lurrak edo ondasun higiezinak erostea: Dirulaguntza lurrak edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzea salbuespenezkoa izanen da, eta, betiere, haien legezko egoerari buruzko txostena egin eta benetan eros daitezkeela frogatzen duen beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

1.2. Eraikitzea eta birgaitzea.

1.3. Eraikuntza-azterlanak eta -proiektuak.

1.4. Eraikuntza-materialak eta horiek garraiatzea.

2. Ekipamenduak erostea eta garraiatzea.

2.1. Makinak.

2.2. Ekipamenduak.

2.3. Garraiobideak.

2.4. Altzariak.

2.5. Lanabesak eta erremintak.

2.6. Ekipo elektronikoak eta informatikoak, eta sistema eta programa informatikoak.

2.7. Ekoizpen zinematografikoak, fonografikoak, bideoak eta ikus-entzunezko serieak: Ikus-entzunezko materialak grabatu, editatu eta diseinatzea, sare sozialetan, webguneetan, espazioetako proiektioetan eta abarretan zabaldu nahi direnak barne, baita itzulpen gastuak ere.

Gastu arruntak

3. Identifikazioa (% 5, gehienez): Tokian egindako identifikaziotik eratorritako gastuak, baldin eta horiek Deialdi honetara proiektuak aurkezteko epea amaitu aurreko sei hilabeteen barruan egin badira eta dirulaguntza osoaren % 5 baino gehiago ez badira. Kontzeptu honi egozten ahal zaizkion gastuak izanen dira honako hauetatik zuzenean eratorritakoak: diagnosiak, identifikazio-lantegiak, aldeztu aurreko ikerketak, etab. (jarduerak eragindako langileria-gastuak, bidaiak eta egonaldiak barne). A modalitateko proiektuetan (berriak) bakarrik sartzen ahalko dira.

4. Materialak eta hornigaiak:

4.1. Jarduerak egiteko beharrezkoak diren hainbat euskarritako materialak (bibliografikoak, ikus-entzunezkoak) eta material suntsikorra erostea, eta horien banaketa eta/edo garraioa.

4.2. Erakusketak eta argazki-ekoizpenak: Jarduerak egiteko eta hedatzeko beharrezkoak diren erakusketa, material grafiko edo idatzizkoen diseinua, maketazioa eta inprimaketa, bai eta itzulpen-gastuak ere. Garraioa eta materialen aseguruak ere (erakusketarik edo antzekorik eginez gero) barne hartzen da.

4.3. Zabalkundea: Epigrafe honetan sartuko dira jarduerak hedabideen bitartez (prentsa, irratia, telebista eta sare sozialak) zabaltzeari dagozkion gastuak.

5. Tokiko langileak: Dirulaguntzek, hala behar izanez gero eta baldin eta diruz lagundutako proiektuaren xedearekin haren beharra garbi justifikatzen bada, horiei dagozkien gastuak estaltzen ahalko dituzte.

6. Atzerriratutako langileak (% 10, gehienez): Kontzeptu hau dela medio jasotzen ahal den zenbatekoa dirulaguntzaren % 10ekoa izanen da, gehienez, betiere aurkeztutako eskabidean zehaztuta ezinbestekoa dela horien parte-hartzea, aurkeztutako proiektuan espero diren emaitzak lortuko badira, eta adierazita langile atzerriratuen zerrenda zein horiek proiektuan betetzen dituzten eginkizunak. Atzerriratutako langileen gastutzak joko dira langile horiek eragindako gastuak oro (nominak, bidaiak, ostatu hartzeak, mantenua...), baldin eta Kooperantearen Estatutuaren arabera araututa badaude.



7. Zerbitzu teknikoak eta profesionalak: Jarduerak egiten eta lan espezifikoak egiten zuzenean inplikaturako zerbitzu teknikoak edo profesionalak.

8. Bidaia, ostatu hartzeak eta dietak: Langileen eta proiektuaren onuradun diren biztanleen mugikortasunari lotutako gastuak dira, esku-hartzea gauzatzeko beharrezkoak direnak. Kontzeptu horren barruan hauek sartzen dira: ibilgailuen erregai-gastuak, aseguruak eta mantentze-gastuak –betiere aurrez esku-hartzearen formulazioan berariaz identifikatuta eta hari lotuta badaude–.

9. Errotazio-funtsak (% 10, gehienez): Kreditu-osagaia duten esku-hartzeen kasuan, errotazio-funtsak ezin izanen du finantzatu diren zuzeneko gastuen % 10 gaitu. Errotazio-funtsen entitate kudeatzaileari galdatzen ahalko zaio kanpoko finantza- eta kontu-ikuskaritza bat aurkez dezan.

10. Finantza-gastuak: Finantza-gastuak, notariotzakoak eta erregistrokoak, eta banku-berme emailekoak diruz lagundu daitezke, betiere dirulaguntzaren xede den jarduerari zuzenean lotuta badaude eta ezinbestekoak badira jardura hori ongi prestatu edo gauzatzeko eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.7 artikuluan xedatutakoarekin bat badatoz.

11. Funtzionamendua: Hegoaldeko tokiko kideari dagozkion funtzionamendu-gastuak bakarrik sartzen ahal dira.

12. Sentsibilizazioa Iruñean (% 3, gehienez): Dirulaguntzek estaltzen ahalko dituzte, zuzeneko gastuen partidaren barruan, Iruñeko udalerrian egindako sentsibilizazio- eta hedapen-jarduerei lotutako kostuak, diruz lagundutako garapen-proiektuarekin zerikusia badute eta proiektuaren aurkezpenean egin beharreko jarduerak zehaztu badira. Ezin izanen dute jasotako dirulaguntzaren % 3 gaitu. Ez dira apartatu honen barruan sartuko entitate onuradunaren sentsibilizazio-jardura globalak eta hedapenekoak.

13. Jarraipena eta ebaluazioa (% 10, gehienez): Kanpoko zein barneko jarraipen- eta partaidetzapeko ebaluazio-prozesuak proposatzen ahal dira, bai eta koordinazio-guneak ere. Gastu horiek ezin izanen dute jasotako dirulaguntzaren % 10 gaitu.

Zeharkako gastutzat hartuko dira entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagozkionak eta diruz lagundutako esku-hartzea gauzatzeko euskarri direnak, betiere, zentzuz dagozkion partean, oro har onartuak diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak kontuan hartuta:

o Gastu hori esku-hartzea gauzatzen ari den aldiari egotzi behar zaio, eta entitate onuradunaren Iruñeko eta Iruñerriko egoitzarekin zerikusia eduki.

o Ezin izanen dute % 7 gaitu.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko:

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: *Gastu diruz lagungarriak egiteko epea bat etorriko da proiektuaren hasierako eta azken justifikazioko datarekin, dirulaguntza jaso ondoren GNLUPi helarazten zaion hasierako eta iraupeneko jakinarazpenaren arabera, salbu eta gauzatzeko aldiaren aldaketa onartzen bada. Aldaketa hori onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak (gerora sortutakoak) daudenean bakarrik baimentzen ahalko da, eta dirulaguntza*



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

gauzatzeko epea amaitu aurretik behar bezala arrazoitutako eskaera aurkeztu ondoren GNLUPean.

Salbuespen gisa, proiektuaren ebaluaziotik eratorritako gastuek proiektua egin ondorengo data izaten ahal dute, justifikazio-epea amaitu baino lehenagokoa betiere.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoak: % 90

Onuradunak azpikontratua egiten duela ulertuko da hirugarrenekin ituna egiten badu dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean egin dezaten. Dirulaguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Justifikatu egin behar da finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerari aplikatzea: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: % 10

Kanpoko ekarpen gisa onartuko dira lursail, areto, ekipo eta materialen zein onuradunen eta tokiko langileen eskulanaren balioespenak, baldin eta zuzenean loturik badaude aurreikusitako jardueren gauzatzearekin. Egiatzatu behar dira esku-hartzearen onuradun diren tokiko kidearen / kontrapartearen edo ondasunak edo zerbitzuak ematen dituen entitatearen ziurtagiriaren bidez.

Egiatzapen horretan ekarpena deskribatu eta kuantifikatu beharko da honako hauek adieraziz: unitate-kopurua, lan-orduak, unitate bakoitzaren prezioa (hala badagokio) eta guztizko balioespena. Balioespenak tokiko merkatuko prezioetara egokitu beharko dira, eta, ekipamenduen edo ondasunen kasuan, antzinatasuna kontuan hartu beharko dute. Nolanahi ere, gainerako ekarpenak bezala kontrolatuko dira.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialdi honetan dirulaguntza jasotzea bateraezina izanen da Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren esparruan ematen dituen beste dirulaguntzekin, urte berean eta jarduera bererako baldin bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 100, ordainketa bakarrean eta aurretik ordaintzea.
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, aldez aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeak eratzeara:

- ☐ BAI ☒ EZ
- Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

- ☒ Justifikazio-kontua:
- ☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapiderearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

1. Diruz lagundutako proiektua egitearen onuradun eta arduradun diren entitateek aurkeztu beharko dituzte proiektuaren garapenaren txosten deskribatzaileak eta finantzarioak (VII. eranskinaren formulario ereduarekin eta oinarri hauetako P.2 apartatuan ezarritakoarekin bat). Txostenak egindako proiektu osoari buruzkoak izanen dira, jarduerak eta Iruñeko Udalaren zein beste finantzatzaile batzuen ekarpen ekonomikoak barne. Honako agiri hauek edukiko ditu:

1.1. Txosten teknikoa (VII.I. eranskina): bertan deskribatuko dira egindako jarduerak, erdietsi nahi ziren helburuak eta lortutako emaitzak, bai eta proiektuaren edo jardueraren garapenean egindako aldaketak ere. Honako hau erantsiko zaio:

a) Egiatzapen-iturriak: proiektuaren formulazioan ezarritakoak.

b) Dibulgazio-materiala: proiektuaren kontura egindako dokumentazioaren kopia (dibulgazio-materiala, txostenak, ikerlanak, ikus-entzunezko materiala, etab.).



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

c) Albiste labor bat, argazkiekin batera, eta proiektuaren mugarri zehatzak jasotzen eta islatzen dituen bideo labor bat, baldin eta azken txostena aurkeztu aurretik bidali ez bada.

d) Beste batzuk: aurkezten ahal den beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.

1.2. Txosten ekonomikoa (VII.II. eranskina), jasotako dirulaguntzari dagokionez. Honako hau erantsiko zaio:

a) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, onartutako aurrekontu osoarena, hau da, hala jasotako dirulaguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez.

b) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, entitate jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, nominak, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute. Modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga, jaulkitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaintzeko era. Inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutxako tiketak.

PFEZaren atxikipena eta ordainketa justifikatu beharko da, autonomoen kasuan.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzen den herrialdean egindako eragiketa edo negozio juridikoengatik egiten diren fakturak, ordainagiriak eta merkataritzako trafiko juridikoaren bestelako dokumentuak jaulki beharko dira herrialde horren tokiko legeriak ezartzen duen moduan.

c) Frogagiri bakoitza ordainketa egin dela egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).

d) Dirulaguntzaren xede izan diren administrazio- eta kudeaketa-gastuak justifikatzeko dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira. Gastu horiek entitate eskatzailearen lokalen mantentze-lanek eta bulegoko materialek sortutako gastuak eta ohiko beste gastu batzuk izanen dira, entitateak Iruñean edo Iruñerrian duen egoitzari dagozkionak.

e) Diruz lagundutako gastuak eta horien ordainagiriak aurkeztuko dira faktura edo bestelako agiri elektronikoan bidez, ahal bada.

f) "Dirulaguntzen justifikazio elektronikoa pertsona juridikoentzat" webguneko izapiderearen barruan, hartzaileak egiaztatuko ditu Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria, baldin eta horiek proiektuaren jarduerarik finantzatu badute, bai eta xede bererako jasotako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.

g) "Dirulaguntzen justifikazio elektronikoa pertsona juridikoentzat" webguneko izapiderearen barruan, adieraziko da justifikazio-betebeharra betetzeko telematikoki aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla, eta kopien kasuan, benetakoekin bat datozela. Halaber, dokumentu horiek eskatzen badira, 10 eguneko epean aurkezteko konpromisoa hartuko da.

h) Tokian tokiko kideari edo kontraparteari dirulaguntzaren zenbatekoa bidali izanaren egiaztatzea,



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

aplikatutako kanbio-tasa zehaztuta.

i) Ziurtagiri bat, tokiko kidearen edo kontrapartearen legeko ordezkariak sinatua, herrialde onuradunean dirulaguntza jaso dutela egiaztatzen duena.

j) Fakturak, ordainagiriak edo froga-balioa duten beste dokumentu batzuk onartuko dira gaztelaniaz edo hizkuntza koofizialetan aurkezten badira, baita ingelesez, frantsesez edo portugesez aurkezten badira ere. Dokumentazio hori aurrekoez bestelako hizkuntza batean badago, dagokion kortesiazko itzulpena edo gaztelaniazko azalpen-dokumentua aurkeztu beharko da.

k) Originalak non gordetzen diren ziurtatzeko agiria. Entitate eskatzailearen eta tokiko kidearen ordezkarien erantzukizunpeko adierazpena, fakturak, gastuen egiazttagiriak eta bestelako agiri originalak non dauden adierazten duena, baita horiek eskura daudela ere, egiaztatzeko beharrik balitz.

2. Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 34.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, berariazko justifikazio-araubide bat ezarri da Nazio Batuetako nazioarteko erakundeendako. Edozein kasutan, horiei beti eskatuko zaie aurkez ditzatela finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiazttagiriak eta berariaz dagokien kontabilitate-kontrola, Estatu-parteei Nazio Batuen agentziei ezarritako funtzionamenduarekin bat. Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak erakunde horiei eskatzen ahal die beste edozein agiri entregatzeko, baldin eta egindako gastuaren justifikazio-kontuaren modalitateari badagokio eta Udalak garrantzitsutzat jotzen badu, betiere kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, eta ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza ematean aurreikusitako helburuak lortu direla behar bezala justifikatzeko.

3. Diruz lagundutako proiektuei edozein unetan egiten ahalko zaie kontrola eta jarraipena, eta haiek gauzatzeko ardura duen entitate onuradunak Iruñeko Udalak eta/edo horrek kontratatutako ikuskaritza- edo ebaluazio-enpresak edo entitateak eskatzen dioten edozein informazio edo dokumentazio eman beharko du.

4. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deitzen ahalko die finantzatutako entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honetan aurreikusitako onuradunen betebeharrik galarazi gabe.

5. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deialdiaren justifikazio-txostena eginen du. Txosten horretan jasoko eta baloratuko dira hala egindako jarduketak nola diruz lagundutako proiektu guztien justifikazio ekonomikoa. Txosten hori organo eskudunari bidaliko zaio, onetsi dezan.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza



Orokorren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

a) 2027ko irailaren 1a baino lehen, txosten partzial bat aurkeztu beharko da, eta bertan gutxienez 2026. urteari dagokion finantzaketaren % 50 justifikatuko da, bai eta jardueretan izandako aurrerapena eta lortutako emaitzak ere. Edo, kasua bada, azken txostena.

b) 2028ko ekainaren 28a baino lehen, 2026. urteari dagokion finantzaketaren azken txostena entregatu beharko da (egindako jarduketak eta aurrekontuaren % 100).

Finantzatu beharreko proiektuak zein testuinguru sozial eta geografikotan garatu behar diren kontuan hartuta, klausula honetan jasotako justifikazio-epeak betetzea galarazten duten arrazoitutako kausarik izanez gero, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luza daiteke, baldin eta horrekin ez badira kaltetzen hirugarrenen eskubideak. Horretarako arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio, idatziz eta dagokion txostena aurkezteko epea amaitu baino 10 egun lehenago, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari, eta horrek balorazio positiboa egin beharko du.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1. E) apartatuko f) letran aipatutako erosketak egitea Iruñeko Udalak horretarako ba imenik espresuki eta alde z aurretik eman gabe.

2. Ez betetzea deialdi honen E) apartatuan jasotako eginbeharra, zeinaren arabera dirulaguntza zertarako jaso eta zehazki horretarako erabili behar baitira ondasunak.

3. Proiektuan aldaketak egitea, F) apartatuan aipatutakoak, Iruñeko Udalak horretarako baimenik espresuki eta alde z aurretik eman gabe.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO UDAL PROGRAMARI DOKUMENTAZIOA AURRETIK ENTREGATU IZANARI BURUZKOA

☒ II. ERANSKINA. GARAPENERAKO LANKIDETZA - INPRIMAKIA

II.I. ERANSKINA INPRIMAKIA

II.II. ERANSKINA AURREKONTUA (Excel / Word formatua. Excel formatua erabiltzea gomendatzen da).

II.III. ERANSKINA KORRELAZIOA GHJen eta CRSen ARTEAN

☒ III. ERANSKINA.

TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTEZKO ESKABIDEA

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. AHALMEN INSTITUZIONALA

V. ERANSKINA. LANKIDETZA-HITZARMENA

VI. ERANSKINA. PROIEKTUAN FUNTSEZKO ALDAKETAK EGITEKO ESKAERA

JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA:

VII.I. ERANSKINA TXOSTEN TEKNIKOAK

VII.II. ERANSKINA TXOSTEN EKONOMIKOA (Excel / Word formatua. Excel formatua erabiltzea gomendatzen da).

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



2026. urtean norgehiagokako araubidean hegoaldeko herrialdeetako toki-entitateekin tokian tokiko garapenaren aldeko lankidetzak-proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak. Deialdiaren laburpena

Deialdi honen helburua da proiektuak finantzatzea hegoaldeko herrialdeetako toki-entitateekin batera. Proiektu horiek egingen dira ELGAko Garapenaren Aldeko Batzordeak Garapenaren Aldeko Laguntza Ofiziala jasotzen ahal duten herrialde onuradunen indarreko zerrendan jasotako herrialdeetan. Bereziki lagunduko dira giza eskubideak babestera bideratutako proiektuak, honako arlo hauetan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, edateko ura eta saneamendua, eta tokiko garapen ekonomikoa. Landako edo hiriko komunitateei mesede egin behar diete, eta sustatu behar dute komunitateen eta beren tokiko ordezkari publikoen parte-hartze aktiboa, proiektu horiek proposatu, kudeatu eta gauzatzean.

Mikel Armendariz Barnechea, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazterriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria.